

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**20/2020 Foru Araua, urriaren 28koa, 13/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 13koa, baliozkotzeko dena, onspena emateko Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urriaren 28an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

20/2020 Foru Araua, urriaren 28koa, 13/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 13koa, baliozkotzeko dena, onspena emateko Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, urriaren 13ko 13/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onspena emateko Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da urriaren 13ko 13/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onspena emateko Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 28a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**